

KONTROL MOZIOA

ZEZENKETEN KONTSULTA DELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko apirilaren 18an Pertsonen Batzordean alkateari aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko apirilean aho batez onartutako udalerriko Hiritar Kotsulten Erregelamendua oinarri hartuta, Donostia Antitaurinoa Orain plataformak, kontsulta eskaera egin ondoren, 2016ko martxorako balizko 9.000 sinadura bildu eta aurkeztu zituen herritar-ekimeneko zezenketen inguruko kontsulta gauzatzeko. Hurrengo galderarekin:

** Ados al zaude Udalak bere titularitatekoak diren ekipamendu eta espazioak zezenketetarako ez alokatu edo uztearekin eta horretarako diru-laguntzarik ez ematearekin?*

Gerora, Hiritar Kotsulten araudia errekurritua, baliogabetua eta berriz ere errekurritua izan da. 2016 uztailaren 14an, Zezenketen Hiritar Kotsultaren deialdia onartu zen, gero auzitegiek kautelarki eten zutena. Hilabete berean Udal Legea errekurritu zuen Estatuak. 2016ko urrian Estatuari Zezenketen herri-kontsulta egiteko eskaera luzatu zitzaion; hilabete horretan kontsulta gauzatzeko bi kontratazio prozedura ere martxan jarri ziren. Eta 2017ko urtarrilean, Estatuaren aldetik kontsulta-eskaerari erantzuteko epe-luzapena igorri zaigu, martxoaren erdialdera arte.

Bistan denez, Donostian demokrazia zuzenak, oro har, eta 9.000 donostiarrek eskatutako Zezenketen Kotsultak, zehazki, eraso, oztopo eta zailtasun askori aurre egiten dihardute azken urte eta erdian, eta uste dugu Udal Gobernuak ez diola beste oztopo bat gehitu behar, aurtengo udarako Donostia Arena Gunea zezenketak egiteko alokairuarekin konprometituz. Oraindik orain, Estatuak herri-kontsulta eskaerari erantzun behar baitio eta, badagokio, kontsulta egin eta hiritarren borondatea entzuteko konpromisoa hartua baitu Udal Gobernuak.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Udal Gobernuari eskatzen die oraindik ez dezatela erabilerara anitzeko Donostia Arena Gunea aurtengo udaran zezenketak egiteko konprometitu, 2016ko urrian Udalak Estatuari luzatutako zezenketen kontsulta-eskaera erantzun eta, badagokio, kontsulta gauzatu arte.

2.- Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio zezenketen-kontsulta udara aurretik egiteko aurreikuspenezko egutegi erreal bat proposa dezala eta sustatzailea den Donostia Antitaurina Orain plataformari, udal taldeei eta herritarrei informa diezaiela.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia